SERIEAREN KODEA	0195

I.- IDENTIFIKAZIOA

1.1. Seriearen izena

1.1.1	Artxibo-zerbitzuko erreferentzia-kodea		
1.1.2	Artxiboko sailkapen-koadroko kodea		
1.1.3	Indarrean dagoen izena	Udalerriko biztanleen erroldako altak, bajak eta aldaketak	
1.1.4	Aurreko izena / beste izen batzuk		
1.1.5	Definizioa/deskribapena	Udalerriko biztanleen erroldan izandako aldaketak eta altak eta bajak jasotzen dituen seriea	
1.1.6	Egilearen edo egileen izena	Erakundea: udalak Arloa: Saila: Herritarren arreta Zerbitzua: Herria Unitatea: Unitate teknikoa:	
1.1.7	Serie baten zatia	Bai:	Ez: X

1.2 Jatorria eta sortze- eta iraungitze-data

Organismoa	Administrazio-unitatea / Funtzioa	Hasierako data	Amaierako data
Toki-administrazioa	Herria		

1.3 Lege-esparrua

1.3.1 Orokorra

Maila	Zenbakia	Izenburua	Xedapenaren data	Buletinaren zenbakia	Argitalpen-data
Legea	7/1985	Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena	1985/04/02	BOE, 080. zk.	1985/04/03
ELD	781/1986	Toki-araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bategina onartzen duena	1986/04/18	BOE, 096. zk.	1986/04/22
Legea	4/1986	Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatistikari buruzkoa	1986/04/23	BOPV, 105. zk.	1986/05/30
ED	2568/1986	Toki-erakundeen antolaketaren, funtzionamenduaren eta araubide juridikoaren Erregelamendua onartzen duena	1986/11/28	BOE, 305. zk.	1986/12/22
Legea	12/1989	Funtzio Estatistiko Publikoari buruzkoa	1989/05/09	BOE, 112. zk.	1989/05/11
FA	63/1989	eskualdeei buruzkoa	1989/11/20	ALHAO, 142. zk.	1989/12/11
Lege organikoa	5/1992	Izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatua arautzekoa	1992/10/29	BOE, 262. zk.	1992/10/31

Legea	30/1992	Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena	1992/11/26	BOE, 285. zk.	1992/11/27
FA	11/1995	Arabako Lurralde Historikoko Herri-batzarrei buruzkoa	1995/03/20	ALHAO, 038. zk.	1995/03/31
FA	3/95	Bizkaiko udalez gaindiko eremuko erakundeak araupetzekoa	1995/03/30	BAO, 073. zk.	1995/04/18
Lege organikoa	15/1999	Datu pertsonalak babestekoa	1999/12/13	BOE, 298. zk.	1999/12/14
Legea	57/2003	tokiko gobernua modernizatzeko neurriei buruzkoa	2003/12/16	BOE, 301. zk.	2003/12/17
Dekretua	308/2005	Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duena.	2005/10/18	BOPV, 218. zk.	2005/11/16
ED	1720/2007	1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen araudia onartzen duena.	2007/12/21	BOE, 017. zk.	2007/01/19
Dekretua	232/2007	Administrazio-prozeduretan bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera arautzen duena	2007/12/18	BOPV, 022. zk.	2007/01/31
FA	6/2007	Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituena	2007/04/10	GAO, 078. zk.	2007/04/23
Legea	11/2007	Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoa	2007/06/22	BOE, 150. zk.	2007/06/23
Legea	37/2007	Sektore publikoaren informazioa berrerabiltzeari buruzkoa.	2007/11/16	BOE, 276. zk.	2007/11/17
ED	1671/2009	Herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateri buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea partzialki garatzen duena.	2009/11/06	BOE, 278. zk.	2009/11/18
ED	2009/2009	1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren bidez onartutako Toki Korporazioen Zerbitzu Erregelamendua aldatzekoa	2009/12/23	BOE, 313. zk.	2009/12/29
Legea	4/2005	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa	2005/02/18	EHAA, 042 zk.; BOE, 274. zk.	2005/03/02 ; 2011/11/14
Dekretua	21/2012	Administrazio elektronikoari buruzkoa	2012/02/21	BOPV, 050. zk.	2012/03/09
Legea	19/2013	Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa	2013/12/09	BOE, 295. zk.	2013/12/10
Legea	27/2013	Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa	2013/12/27	BOE, 312. zk.	2013/12/30
Legea	18/2015	Sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legea aldatzen duena.	2015/07/09	BOE, 164. zk.	2015/07/10
Legea	39/2015	Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkidearena	2015/10/01	BOE, 236. zk.	2015/10/02
Legea	40/2015	Sektore publikoaren araubide juridikoarena.	2015/10/01	BOE, 236. zk.	2015/10/02
Legea	2/2016	Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa	2016/04/07	BOPV, 070. zk.	2016/04/14

Errege Lege Dekretua	**5/2018**	**Espainiako zuzenbidea Europar Batasunak datuen babesaren arloan emandako araudira egokitzeko presako neurriena**	**2018/07/27**	**BOE, 183. zk.**	**2018/07/30**
Lege Organikoa	**3/2018**	**Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa.**	**2018/12/05**	**BOE, 294. zk.**	**2018/12/06**
Errege Dekretua	**203/2021**	**Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua onartzen duena.**	**2021/03/30**	**BOE, 77. zk.**	**2021/03/31**

1.3.2 Espezifikoa

Maila	Zenbakia	Izenburua	Xedapenaren data	Buletinaren zenbakia	Argitalpen-data
Dekretua		Toki-erakundeen biztanleriaren eta lurralde-mugaketaren Erregelamendua	1952/05/17	BOE, 164. zk.	1952/06/12
ED	1690/1986	Toki-erakundeen biztanleriaren eta lurralde-mugaketaren Erregelamendua	1986/07/11	BOE, 194. zk.	1986/08/14
Legea	4/1996	Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duena, udal-erroldari dagokionez	1996/01/10	BOE, 011. zk.	1996/01/12
Dekretua	65/1996	1996ko Biztanleen Udal Erroldaren berriztapenaren eta ondorengo errolda-kudeaketaren aprobetxamendu estatistikorako eta 1996ko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika egiteko arau teknikoak ezartzen dituena	1996/04/02	BOPV, 071. zk.	1996/04/12
ED	2612/1996	Uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bitartez onartu zen toki-erakundeen biztanleria eta lurralde-mugaketaren Erregelamendua aldatzekoa	1996/12/20	BOE, 014. zk.	1997/01/16
Ebazpena		Idazkariordetzarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Estatistikako Institutu Nazionaleko lehendakariak eta Lurraldeen arteko Lankidetzako zuzendari nagusiak apirilaren 1ean batera emandako ebazpena, udalei jarraibide teknikoak ematen dizkiena udal-errolda kudeatzeari eta berrikusteari buruz	1997/04/09	BOE, 087. zk.	1997/04/11
Ebazpena		Idazkariordetzarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Estatistikako Institutu Nazionaleko lehendakariak eta Lurraldeen arteko Lankidetzako zuzendari nagusiak uztailaren 4an batera emandako ebazpena, udalei jarraibide teknikoak ematen dizkiena udal-errolda eguneratzeari buruz	1997/07/21	BOE, 177. zk.	1997/07/25
Legea	2/2004	Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.	2004/02/25	BOPV, 044. zk.	2004/03/04
Ebazpena		Idazkariordetzarena, zeinaren bidez Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Tokiko Lankidetzarako	2005/05/26	BOE, 128.	2005/05/30

		Zuzendaritza Nagusiaren 2005eko apirilaren 28ko Ebazpena argitaratzen baita; ebazpen horrek jarraibide teknikoak eman dizkie udalei, Erkidegokoak ez diren eta bizileku iraunkorreko baimenik ez duten atzerritarren erroldako inskripzioak –bi urtean behin berritzen ez direnak– iraungi direla erabakitzeko prozedurari buruz.		zk.	
Ebazpena		Ebazpena, 2015eko martxoaren 16koa, Idazkariordetzarena, Estatistika Institutu Nazionalaren eta Autonomia Erkidegoekin eta Tokiko Erakundeekin Eskumenak Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusiaren 2015eko urtarrilaren 30eko Ebazpena –biztanleen udal-errolda kudeatzeari buruz udalei emandako jarraibide teknikoena– argitaratzen duena.	2015/03/16	BOE, 071. zk.	2015/03/24
		Udal-ordenantzak			

II.- EZAUGARRIAK

2.1 Ezaugarri fisikoak eta orokorrak

2.1.1	Euskarria	Papera / Elektronikoa
2.1.2	Deskribapen-maila	Seriea
2.1.3	Kopiarik badagoen beste euskarri batzuetan	
2.1.4	Urtean zenbat handituko den (balioespena)	
2.1.5	Seriearen bolumena	
2.1.6	Ordenatzeko irizpideak	Kronologikoa eta izapidea
2.1.7	Seriearen hasierako data	1823 (Probintzien, uharteen eta ondoko jabetzen gobernu ekonomiko-politikorako jarraibideak, 1823ko otsailaren 3koak)
2.1.8	Seriearen amaierako data	
2.1.9	Ale-kopurua eta non dauden	- Udalak - Estatistikako Institutu Nazionala (hileko fitxategiak eta urteko berrikuspena) - Eustat (erroldaren fitxategia, urteko aldaketen fitxategia eta zenbakizko laburpenen fitxategia)

2.2 Izapidetze-prozedura

2.2.1	**Espedientea osatzen duten dokumentuak**

Oro har:

Eskatzailearen identifikazioa honako dokumentazio honekin egiaztatuko da:

- NANa, edo
- Bizileku-baimena, edo
- Pasaportea, edo
- Europar Batasuneko atzerritarren kasuan: jatorrizko herrialdeko identifikazio-agiria eta Atzerritarren Erregistro Zentraleko inskripzio-ziurtagiria.
- Eskaera interesdunaren ordezkari gisa egiten denean: ordezkaritza-orria eta ordezkariaren eta ordezkatuaren identifikazio-agiria.

Etxebizitzan benetan bizi dela egiaztatzea, honako agiri hauek aurkeztuta egingo da, kasuan kasu:

- Etxebizitza jabetzan duenean: salerosketako eskritura publikoa, edo argiaren, gasaren edo telefonia

finkoaren fakturak.
- Etxebizitza alokatuta dagoenean: errentamendu-kontratua.
- Etxebizitza azpierrentatuta dagoenean: azpierrentamendu-kontratua, etxebizitzaren jabearen sinadura baimenduarekin.
- Etxebizitzaren jabea edo errentaria ez denean: jabeak edo errentariak sinatutako baimen-agiria.
- Erroldatzea etxebizitza kolektiboan bada (pentsioak, egoitzak): Zentroko zuzendaritzak sinatutako baimena.
- Adingabeentzat:
    - o Aitaren eta amaren legezko ordezkaritza egiaztatzen duen agiria: Familia-liburua edo jaiotza-ziurtagiria.
    - o 16 urte beteta baditu: NANa, bizileku-baimena edo jatorrizko pasaportea indarrean.
    - o 16 urtetik beherako atzerritarrak: bizileku-baimena edo pasaportea
    - o Adingabea familiakoa ez den beste etxebizitza batean erroldatuta badago: amak eta aitak sinatutako baimena eta haien identifikazio-agiria, eta etxebizitzaren jabeak edo errentariak sinatutako baimena.
    - o Adingabea gurasoetako bakar batekin erroldatuta badago: zaintza eta jagoletza berari ematen dion epai judiziala, edo, bestela, beste gurasoak sinatutako baimena, haren identifikazio-agiriaren kopiarekin batera. Salbuespen gisa, beste gurasoaren baimena lortu ezin denean, gurasoetako baten erantzukizunpeko adierazpena.
- Ezintasuna duten adin nagusiko: Epai judiziala.
- Udalerrian ohiko bizilekua duela egiaztatzen duen dokumentaziorik ez badu: Udalaren egiaztapen-txostena.

Hasiera:
Ofizioz:
- INEren fitxategia, edo
- Hasteko dekretua
Alde batek eskatuta:
- Eskabidea + dokumentazio osagarria

Izapidetzea eta amaiera:
- Inskripzioa
- Beste udalerri bati jakinaraztea, hala badagokio

Bestelako dokumentazioa behar duten kasuak:

Alta erroldan ez agertzeagatik (udalerrian bizi ohi diren pertsonak, udal-erroldan inskribatuta ez daudenak) eta **bidegabeko inskripzioagatiko bajak** (herritar bat bizi ez den etxebizitza batean inskribatuta dagoenean), dekretu bidez hasitakoak:
- Egiaztapenaren txostena
- Idazkariaren txostena
- Jakinarazpena
- Hartu-agiria
- Ezin bada jakinarazi: Lurraldeko Aldizkari Ofizialean eta ediktu-taulan argitaratzea
- Alegazioak
- Ebazpena
- Alta/baja datu-basean inskribatzea
- Altaren jakinarazpena jatorrizko udalerriari

Interesdunak aurkako alegazioak aurkezten baditu:
- Errolda Kontseiluari txostena eskatzea
- Errolda Kontseiluaren txostena, positiboa bada
- Alta/baja datu-basean inskribatzea

Iraungitzeagatiko bajak (bizileku iraunkorreko baimenik ez duten Europako Erkidegokoak ez diren atzerritarrak, "ENCSARP", inskripzioa bi urtera berritu ez dutenak).
- INEren fitxategia
- Udalak ENCSARPei erroldatzea iraungi egiten dela aldez aurretik jakinaraztea
- Hartu-agiria
- Ebazpena

- Jakinarazpena
- Hartu-agiria
- Baja datu-basean inskribatzea

Berritzeagatiko aldaketa (bizileku iraunkorreko baimenik ez duten Europako Erkidegokoak ez diren atzerritarrak, "ENCSARP", inskripzioa bi urtetik behin berritu behar dutenak).
- Eskabidea
- Identifikazio-agiria:
- Udalerrian eta etxebizitza horretan bizitzen jarraitzen dutela dioen adierazpena
- Aldaketa datu-basean inskribatzea

Berresteagatiko aldaketa (inskripzioa berritzera behartuta ez dauden atzerritarren, "NO_ENCSARP", bizilekua berresteagatik)
- Bizilekua berresteko errekerimendua
- Bizilekuaren jarraipena berresteko dokumentua
- Bizilekua egiaztatzeko txostenak
- Aldaketa datu-basean inskribatzea

Lurralde-datuak aldatzea (biztanleek esku hartu gabe)
- Lurralde-datuen aldaketa
- Aldaketa datu-basean inskribatzea
- INEri jakinaraztea
- INEren onespenak
- Aldaketa jakinaraztea eragindako biztanle bakoitzari

Aurreko kasu guztietan, hilero:
- Fitxategiak INEri
- INEko fitxategiak

ERROLDAREN BERRIKUSPENA
- Udalbatzak onartzea
- Idazkariaren ziurtagiria, alkatearen oniritziarekin

INE
- Fitxategiak INEri
- INEren eragozpenak, hala badagokio
- Errolda Kontseiluaren txostena, hala badagokio

EUSTAT
- Fitxategiak EUSTATi

2.2.2	**Administrazio-prozedura**

Udalei dagokie biztanleen udal-errolda osatzea, eguneratzea, berrikustea eta zaintzea, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak eta Administrazio Publikoen Ministerioak onartutako arauen arabera, Erroldatze Kontseiluak proposatuta.

4/1996 Legeak eta 2612/1996 Errege Dekretuak aldatu egin dute errolda egiteko, mantentzeko eta eguneratzeko eredua. Ordura arte, bost urtean behin egiten ziren errolda-orrien bidez (orri horiek etxeetan betetzen ziren), eta urtero berrikusten ziren, pertsonek jakinarazitako aldaketak sartzeko. Sistema berriak ekarritako aldaketa garrantzitsuena baliabide informatikoak erabiltzea da: baliabide informatikoak erabiltzen dira errolda sortu eta berrikusteko, eta kudeaketa-sistema jarraitu eta informatizatua sortu da, errolda etengabe eguneratuta edukitzeko.

Aurreko sistemaren bidez egindako azken errolda 1996ko maiatzaren 1ean egin zen, eta kudeaketa jarraitu eta informatizatuaren sistemarekin egindako lehenengoa, 1998ko urtarrilaren 1ean. Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) udal-errolda guztiak koordinatzen ditu eta datuak estatistikoki ustiatzen ditu. Urte bakoitzeko urtarrilaren 1a erreferentzia hartuta, udal-erroldaren berrikuspena lortzen da, eta Gobernuak onartzen du, INEk proposatuta,

Erroldatze Kontseiluak aldeko txostena eman ondoren.

ALTAK honengatik izan daitezke:
- Jaiotza,
- Bizileku-aldaketa beste udalerri batetik,
- Omisioa: udalerrian bizi ohi diren eta udal-erroldan inskribatuta ez dauden pertsonei dagokie.

BAJAK honakoengatik izango dira:
- Heriotza,
- Bizileku-aldaketa beste udalerri batera,
- Bidegabeko inskripzioa: herritar bat bizi ez den etxebizitza batean inskribatuta dagoenean.
- Inskripzioak bikoitza,
- Iraungitzea: bizileku iraunkorreko baimenik ez duten Europako Erkidegokoak ez diren atzerritarrak, "ENCSARP", inskripzioa bi urtera berritu ez dutenak.

ALDAKETAK honakoengatik izango dira:
- Erroldan jasotako datuetan izandako aldaketak, udalerri-aldaketa ez badakarte;
Berritzea: bizileku iraunkorreko baimenik ez duten Europako Erkidegokoak ez diren atzerritarrak (ENCSARP) inskripzioa bi urtetik behin berritzea eskatu behar dute.
Berrestea: inskripzioa berritzera behartuta ez dauden atzerritarren (NO_ENCSARP) bizilekua berresteko.
- Lurralde-datuak aldatzea (biztanleen esku-hartzerik gabe): sekzionatua, biztanleria-unitateen izen laburrak, bideak edo zenbakiak aldatzen direnean erabiltzen da. Aldaketa bat sortuko da eragindako biztanle guztientzat.

Hasiera:
- Ofizioz: INEk datuen hileroko trukatze-fitxategietan emandako informazioaren bidez, edo barne-egiaztapenen bidez.
- Aldeak eskatuta: interesdunak eskatuta

Izapidetzea eta amaiera:
- Beharrezko datuen aldaketa informatikoa
- Beste udalerri batzuei datuak jakinaraztea, hala badagokio
- Batzuetan, datuen egiaztapenak egin beharko dira, eta, horretarako, udaltzaingoari edo beste funtzionario batzuei eskatuko zaie, hala badagokio
- INEri hilero jakinaraztea erregistratutako aldaketak, truke-fitxategi baten bidez.
- INEk hilero hautemandako desadostasunak jakinarazten ditu, dagozkion aldaketak egin daitezen.

ERROLDAREN BERRIKUSPENA

Erroldaren berrikuspena Udalbatzan onartuko da, urte bakoitzeko urtarrilaren 1a erreferentzia hartuta, eta aurreko ekitaldian egindako jarduerak formalizatuko ditu. INEra eta EUSTATera bidaltzea:

INE

Zenbakizko emaitzak INEren Probintzia Ordezkaritzara bidaliko dira urte horretako martxoaren 1a baino lehen. Zenbakizko emaitzak eredu ofizialetan islatuko dira.

1. Alten laburpena udalerriko sekzio bakoitzean (PRA eredua).
2. Bajen laburpena udalerriko sekzio bakoitzean (PRB eredua).
3. Udaleko zenbakizko laburpen orokorra (RGM eredua).

Berrikuspenari dagokion dokumentazio guztiarekin batera idazkariaren ziurtagiria aurkeztuko da, alkateak onetsia. Ziurtagiri horretan jasoko da erroldaren berrikuspenaren zenbakizko emaitza Udalbatzak onartu duela, eta bilkuraren data zehaztuko da.

INEk hilabeteko epea izango du zifrak onartzeko edo dagozkion eragozpenak jakinarazteko. Akordiorik lortzen ez bada, Errolda Kontseilura joko da. Erakunde horren ebazpena loteslea izango da, dagozkion jurisdikzio-errekurtsoei

kalterik egin gabe.

EUSTAT

"65/1996 Dekretua, apirilaren 2koa, 1996ko biztanleen udal-erroldaren berriztapenaren eta ondorengo errolda-kudeaketaren estatistika-ustiapenerako eta 1996ko biztanleriaren..." arauaren arabera, udalek fitxategiak bidaliko dizkiote **EUSTATi**, dagokien urtearen hurrengo urteko otsailaren 28a baino lehen. Informazio hau izango dute fitxategiek:

- Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikarako datuak.
- Udal-erroldaren fitxategia, urte bakoitzeko abenduaren 31n, urtean egindako errolda-kudeaketaren ondorioz eguneratua.
- Urte horretan izandako erroldako mugimenduak jasotzen dituen fitxategia.
- Errolda-sekzioen araberako zenbakizko laburpenak, errolda-mugimenduen eta zentsu-sekzioen konfigurazioan izandako aldaketenak.

Datu pertsonaletarako fitxategiei buruzko 2/2004 Legearen bigarren xedapen gehigarriak adierazten duenez, EUSTATek "Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri guztietako udal-errolden kopien gordetzaile-lana ere egingo du, eta, horretarako, udalerriek administrazio-erregistro horien kopiak bidali beharko dizkiote...".

2.3 Beste dokumentu batzuekiko lotura

2.3.1	Aurreko serieak	1996 arte -Biztanleen erroldak eta zuzenketak -Erroldako alten espedienteak -Erroldako bajen espedienteak -Adierazpen orriak
2.3.2	Beheragoko serieak	
2.3.3	Lotutako serieak	-Errolda-agiriak -Errolda-ziurtagiriak
2.3.4	Bilduma-dokumentuak	-Errolden berrikuspenak -Biztanleen udal-errolda

III. BALORAZIOA

3. Balioak

3.1.	Administratiboa	Bai
3.2	Legezkoa/juridikoa	Bai
3.3	Zerga-alorrekoa	Ez
3.4	Informatiboa	Bai
3.5	Historikoa	Bai

IV. HAUTAKETA

4.1 Hautaketa-proposamena

Kontserbazio iraunkorra	Bai.
Guztiz ezabatzea	
Zati batean ezabatzea	

4.2 Laginketa-motaren proposamena

Hautakorra	
Ausazkoa	
Mistoa	

Probabilistikoa	
Beste batzuk	

4.3 Transferentzia-epeak

Artxibo nagusira: epea eta justifikazioa	
Tarteko artxibora / artxibo historikora: epea eta justifikazioa	

V. SARBIDEA

5.1	Askea	
5.2	Mugatua	Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren arabera
5.3	Epeak	
5.4	Erreprodukzio-baldintzak	Artxibo bakoitzaren erregelamenduaren araberakoa izango da
5.5	Dokumentuen hizkuntza	Gaztelania/Euskara
5.6	Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak	
5.7	Deskribapen-tresnak	
5.8	Iruzkinak	

VI.- OHARRAK

6.1	Oharrak	Aldian-aldian etorkizunean sortzen diren kontserbazio-euskarrietara migratzea
6.2	Kudeatzailearentzako gomendioak	

VII- KONTROL-ARLOA / OHARREN ARLOA

Azterketaren arduraduna eta organismoaren izena	ABYC Soluciones Documentales SL.
Landa-lana egin den artxiboa/k	Zamudioko Udal Artxiboa
Aztertutako aldien muturreko datak	1996-2016
Azterketaren data	2016ko abendua
Azterketaren berrikuste-data	
DOBAUBAren onarpen-data	2017/03/06
EHAAko argitaratze-data	2017/04/11
Oharrak	

I. eranskina

DIGITALIZATUTAKO ESPEDIENTEA (Zamudioko Udal Artxiboa)

UDAL-ERROLDAKO ESPEDIENTEA 2015, katalogo-zenbakia 6525/000:

BIZILEKUZ ALDATZEAGATIKO ALTA
- Inskripzio-orria
- Familia-liburua

BESTE UDALERRI BATEAN ERROLDATZEAGATIKO BAJAK:
- Beste udalerri batzuen jakinarazpenak, beraien biztanleen erroldan alta eman dela adierazten dutenak: izen-abizenen zerrenda, NANa, jaiotze-data eta altaren inskripzio-data

OFIZIOZKO BAJAK:
- Etxebizitzaren jabearen eskaera, 2015/02/25
- Udaltzaingoaren txostena, bizilekua hor ez duela adierazten duena, 2015/03/03
- Baja eskatzen den pertsonaren erroldatze-agiria, 2015/02/26
- Idazkariaren txostena, 2015/03/05
- Alkatetzaren dekretua, prozedura hasteari eta alegazioak aurkezteko epea emateari buruzkoa, 2015/03/05
- Alkatetzaren dekretua interesdunari jakinaraztea, 2015/03/06
- Eginbidea, jakinarazpena ezin izan dela entregatu jasota uztea, 2015/03/09
- Alkatetzaren dekretua beste interesdunari jakinaraztea, 2015/03/06
- Beste interesdunari egindako jakinarazpenaren hartu-agiria, 2015/03/09
- Interesduna Sondikako biztanleen erroldan alta eman dela adierazteko jakinarazpena, 2015/03/11
- Eskatzaileari jakinaraztea ofizioz baja emateko espedientea geldiarazteko espedienteari hasiera eman zaiola, dela beste udalerri bateko inskripzioa jaso delako, 2015/03/23